PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Lantzeko Mintegia

Lantzeko Mintegia

Lantzen dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Lantz non dagoen ikus dezakezu.

Lantzeko Mintegia
landareak landatzen ziren toki bat zen
ondoren beste leku batzuetan landatzeko.
1935ean itxi zuten.
Inguruan baso asko zeuden
eta errepidetik gertu zegoen.

Horregatik frankistek leku hau
1936. urteko Estatu Kolpearen aurka zeuden
pertsona asko hiltzeko eta lurperatzeko erabili zuten.

Leku hau 1938ko maiatzean
San Cristobal Gotorlekutik ihes egin zutenean
atxilotu zituzten pertsonetako batzuk hiltzeko ere erabili zuten.

2011. urtean Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Protokoloa martxan jarri zen.
Orduan Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak 1936
pertsona hauen gorpuzkiak berreskuratzeko
desobiratze bat egitea eskatu zuen.
Ez zuten gorpuzkirik aurkitu.

2012. urtean
beste desobiratze bat egiten saiatu ziren
leku ezberdin batean
baina ez zuten gorpuzkirik aurkitu.

2017, 2019 eta 2021 urteetan
Nafarroako Gobernuak
desobiratze gehiago egiten saiatu da
baina ez du gorpuzkirik aurkitu.

Hemen monolitoaren argazkia ikus dezakezu:

